



HOGEGARREN MENDEAN ZUBEROAN BILDU ATSOTITZAK

(Osagarriaz eta eritarzünaz)

1. Erran zaharrak, Intxauspe kalonjeak bildurik eta G. Hérelle-ntzat, Leopold Irigaray ligiarrak aldaturik. (1905)

A. Janariez

Janarien balorapena, besterik adierazi nahi duen atsotitzean ager liteke:

73. **Hobe dük aza zopa adixkidearekin ezinez ollo salda onerizten ez haianarekin**

B. Edariak

Aipatzenago dira janariak baino, beren bertuten edo galbideren gatik, edo eginbarrekoen adierazgarri; Ardoa goستن da

7. **Astoak ardoa ekarten eta ura edaten**

Baina bere gaitzak ere ezagutzen

67. **Haboro itotzen du ardoak, ezinez urak.**

Urak ere bere lekua badu, adibide edo irudi bezala uler dezakegu, ordea, erran zaharra

42. **Ez edan errekan ahal baduk iturrian.**

K. Gosea ta lana

Gosea baitzen oraino mende honen hasieran Zuberoan kezka handia ez da harritzekoa, hemeretzigarren mendean bildu atsotitzak, hogeian irakurtzea.

Denak ez ziren, ordea, gosez hiltzen garaian

64. **Guti hiltzen goseak hanitx aldiz aseak..**

Hobe da, hein batean, gutxi jatea

62. **Guti jatetik eta guti mintzatzetik ez da heltu gaitzik.**

Lanak ekartzen baitu ogia

51. **Ez da ogirik neke gaberik.**

Ogi gogorra ere, halere ona da, Batista Sala Larraineoak bere kantore batetan zion, erran zahar gisan "Ez da xuria baina / gabea da beltza". Intxauspe-k aldiz dio, bildu digu:

61. **Gose denaren ez da ogi gogorrik**

Gosearen kentzeko lehenago gehienek uzta zuten go-goan eta erranak zion.

86. **Lantze onak
uzta onak**

Gero Izadiak lagundu behar, noski, uztak izaten.

102. **Negua elurte
Uda ogite.**

Ez zaigu ahaztu behar, hemeretzigarren mendearen azken berrogeitahamar urteetan, goseteak ezagutu zirela Iparraldean, eta gero ere, etxadi batzutan haurrek ez zutela beren gosera jaten, "arraultze bat hiruren artean jaten gini-zün" entzuna dugu Luxia Lohidoi-ri Ligin. Halere, lagunez gaizki ikusia zen langile txarra zeren: Irigaray-ek dio "**Auher eta gormant / ezin izan gizon galant**" eta Intxauspe-k

89. **Langile gaixtoa
lehenik jatera,
azkenik lanera**D. **Hotz ta bustiak**

Goseaz kanpo osasunaren etsaietan haundiena bustia izan zitekean edo berdin beroa ta hotza arerio horregatik zioten:

48. **Euri ala eki (eguzki)
hoala kapareki**

Osasun aholku lege har dezakegu atsotitz hau, baina, ekintzarako irudia lez ere:

117. **Ur geldian ez ezar (ipiñi) oiñik ez eskurik.**

Nola nahi euriaz da axolatu beharrenik, euritakoa beste norbaiti eman gabe:

59. **Goizeria denean gorri
ezterrera euritakoa nehorri.**E. **Eritasun ta sendagileak**

Gaitzak ez dira gehiegi aipatzen, batek dirudi zerbait bil-dur ta izu sortzen zuela, **erotasunak**.

33. **Egik lekü aizeari
halaber eroari.**

Eta arrazoiak ere zehaztu egiten dira, beste atsotitz bate:

47. **Eroa etxerat hartü
etxea galdü
eroa begiratü (gorde)**

Sendagilea, ospe hobearen irabazten ari dela ez dirudi

10. **Atxeterrek xahutzen (garbitzen) gorputza
apezek arima, abokatuek moltsa...**

Jüsef Egiategi ehun urte goizago 1780.an gogorragoa zen ziolarik:

**Atxeterrek hilherriak bizkartzan
abokatüek mosak ordokitzen**

(Mosde Etxeberriren gogamenak, arg. gabea)

Halere gaitzak nondik heldu diren parabolaz zioten

27. **Xakur alferra, kukuosoz beterik.**

eta zuberotarrago Irigaray-ek

Hor flaküa, oro küküso

BESTE SENDAKETAK**1. HIDROTERAPIA**

Hidroterapia gaurko sendakuntza ez-tia?

**1.1. Joanes ETXEBARNE "Etxexuri"**

Aintziñako sendabideen berritzapenean, orainarte Zuberoako urena ez zen gogoetan sartu, eta emeki-emeki urleku ta bainuak galtzera zoatzin. Duela bospasei urte eta duela bi urte "Herri-kontratu" delakoan inguruan gure probintzi hunetako, izadi aberastasunez egin zen pentsamenduka, bilera, eztabaida: azkenik, beharrezkoen hautatzeko, ezen gure mendi eskualde hau osoki hustutzea ez baitugu utzi nahi. Dirua frantses gobernuak, baina herriko taldeek eman zezaketen dossieretan onartuak izan direnak obratzeko. Halaxe gertatu da, Zuberoako senda-uren baliapenerako egin zen eskaria, eta hain zuzen "Ziberoako botza" deritzaion euskal irratian, orain aldatzera noan elkarhizketa entzun nuen, Ahüzkiko azken ostatuzainak, Martxel Bedaxagar-ekin hitzegiten ari zelarik.

M.B. Eta zoin da sindikataren, Ziberoako sindikataren politika, ütürrier büüz?

Herri kontratü horren üngürüan biltzen hasi ginelarik bereala agertü zia(n), sendotzeko erabili ziren ütürriak ez günütüala galtzera ützi behar, gure mendietako hontarzüna zela "hura". Oroek kontzentzia hori baginia(n), bena nuntik has etxakin. Azkenean baliosenak, ezagüenak behar gün-tüala berritü, deliberatü ginea(n): hots Jun Dane Juhanen ütürria Leixtarren eta hebenko Ahüzkikoa, mendian, eta Mauleko Jon Dane Petiri-rena.